

INFORMAZIO OHARRA

Landatartasun berriari buruzko jardunaldia

Eusko Ikaskuntzak eta Arabako Foru Aldundiak XXI. mendeko landatartasunari buruzko jardunaldia antolatu dute Gasteizen, urriaren 28an.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriak 25. Arabako lurralde-aniztasunari ekitea proposatzen du “XXI. mendeko landatartasun berria. Praktikak eta kontakizunak” jardunaldiak. Bai eta diskurtso-jardunbideen eta lurralde-garapenaren paradigma berri bat eta landa-eremuaren eta hiri-eremuaren arteko harreman berriak planteatzen dituzten kontakizunen inguruan eztabaidatzea ere.

Urriaren 28an, ostegunean, izango da Gasteizko Europa Jauregian eta on-line formatuan, eta egitaraua bi zatitan banatu da. Lehenengoan, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Eusko Ikaskuntzak Arabako lurraldearen errealitateari buruz egindako bi azterlan aurkeztuko dira: “Arabako despulazio-prozesuaren azterketa demografikoa, azterketa eta diagnostikoa”, EHUKo Mari Cruz Porcal Gonzalok azalduko du, eta “Herrietan eta landa eremuan bizitzearen aldeko ahotsak” eta “Lurralde Orekarako Estilo-Liburua” inguruan Imanol Esnaola, Eusko Ikaskuntzako bazkidea, jardungo da.

Bigarren zatian, mahai-inguru gisa, “Praktika diskurtsibo eta kontakizun berriak eta diskurtso-praktikak” izango dira hizpide. Aritz Ibañez (Mendialdea Radio), Irantzu Lekue (artista garaikidea), Marta Martín (Noticias de Álava) eta Unai Ugarte (Radio Vitoria) arituko dira, Ion Muñoa (Eusko Ikaskuntza) moderatzaile dutela.

Jardunaldiari amaiera emango diote Pilar García de Salazar Garapen Ekonomikoaren, Berrikuntzaren eta Erronka Demografikoaren foru diputatuak eta Ana Urkiza Eusko Ikaskuntzako lehendakariak.

Jardunaldian parte hartzeko izen ematea, bai birtualki zein presentzialki, zabalik da www.eusko-ikaskuntza.eus web orrialdean.

Eusko Ikaskuntzaren Lurralde Oreka programaren baitan jasota dago ekimena, eta azaroaren 17an Añanan eta abenduaren 1ean Maeztunbeste bi jardunaldi egingo dira, Arabako Foru Aldundiak eta Vital Fundazioak babestuta.

EGITARAUA

LANDATARTASUN BERRIA XXI. MENDEAN. PRAKTIKAK ETA ERRELATOAK

Ekitaldi hibridoa: Aurrez aurre eta birtuala

Hizkuntza: Euskara eta gaztelera (Aldi bereko itzulpen zerbitzua eskainiko da)

10:00 Sarrera

Eusko Ikaskuntza (eu-es)

Arabako Foru Aldundia (eu-es)

10:15 Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) eta Eusko Ikaskuntzak, hurrenez hurren, eginiko ikerlanen aurkezpenak

Arabako despopulazio-prozesuaren azterketa demografikoa, analisia eta diagnostikoa (es)

Mari Cruz PORCAL GONZALO. Euskal Herriko Unibertsitatea

Herrietan eta landa eremuan bizitzearen aldeko ahotsak eta Lurralde-Orekarako Estilo-Liburua (eu)

Imanol ESNAOLA. Eusko Ikaskuntza

Galderak

11:15 Atsedena

11:30 Mahai ingurua “Praktika diskurtsibo eta errelato berriak”

Moderatzaile/Errelatore: Ion MUÑOA. Eusko Ikaskuntza (eu-es)

Aritz IBAÑEZ. Mendialdea Radio

Irantzu LEKUE. Artista garaikidea

Marta MARTÍN. Noticias de Álava

Unai UGARTE. ACOA-AKE (Arabako Kontzeju Elkarte)

13:00 Itxiera

Ana URKIZA. Eusko Ikaskuntza (eu-es)

Pilar GARCÍA DE SALAZAR. Arabako Foru Aldundia (eu-es)